


BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure zerbitzua aurrez aurrekoa izango da, izan ere, gure karga geltokian beti egongo da langileren bat bezeroei euren garraibideak kargatzen laguntzeko eta dirua jasotzeko.



Gure bezeroekiko harremana estutzeko asmoarekin sozio izateko aukera eskeiniko diegu sozio txartel baten bidez. Txartel hau hileroko ordainketa baten truke eskuratu ahal izango da, eta kartera birtual baten modura erabiltzeko balioko du. Diruarekin kargatu beharko da, eta ordaintzerakoan erabiliz gero %5 eko beherapena izango du hilabetearen hasieran bezero sozioak. Gure zerbitzua erabiltzen joan ahala beherapen hau

handitzen joango da, maximo %15 eko deskontua izatera iritsi arte. Sozio kuota ordainduz gero, bezero orok %5eko deskontua izango du hilabete hasieran. Modu honetara bezeroari ordainketa metodo erosoago eta ekonomikoago bat eskaintzen zaio.

Telefono zenbaki bat ere izango dugu dendan, edozein momentutan bezeroek gurekin komunikatu daitezten. Hori bai, telefona denda irekita dagoen denbora tartean soilik izango da erabilgarri.



Dendaren orduetegiari dagokionez, webgunea momentu oro zabalik izango dugu, baina denda fisikoko ordutegia mugatua izango dugu. Asteko egun guztietan irekiko dugu karga estazioa goizez eta arratsaldez: 8:00tatik 13:30ra goizean eta 15:30tatik 22:00ra.